



## “TOMAS GARBIZU” LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA 2023-2024 Ikasturtea

Famili agurgarriak:

"Tomas Garbizu" Lezoko Udalaren Musika Eskolak ikasturte berrirako MATRIKULA irekiko du, 2020, 2019, 2018 eta 2017 (4, 5, 6 eta 7 urte) urteetan jaiodiren haur guztientzat.

Hezkuntza mota hau 4 eta 7 urte bitarteko haurrentzat da, horientzat bakar bakarrik. Helburua, berriz, adierazpenerako, musikarako eta mugimendurako gaitasuna esnatzea eta garatzea da, pedagogi sistema berriaren baten bidez; musika-tresna aukeratzeko eta musikaz gozatu eta gustura sentitzeko bidea izan dezaten, hartara.

Talde lanean egingo dira prestakuntzarekin loturiko aktibitate edo esperientzi musikalak. Bitarte horretan, musika-tresnekin harremanetan sartzeko aukera izango dute haurrek.

Musika Eskolak eskaintzen dituenak hauek dira:  
Klarineta, saxofoia, perkusioa, tronpeta, pianoa, biolina, biola, gitarra, txistua, trikitixa, akordeoia eta zeharkako txirula.

Erabat ilusionaturik gaude gu lan honetan. Izan ere, iruditzen baitzaigu merezi duela ekintza honek, eta musika bizi eta maite duen haur bat bizitza bera ere beste modu batetara ikusteko aukeran dagoela.

**Eskaintza honetan, zuen seme-alabaren zenbait datu eskatzen dizkizuegu. Proiektu honetan partaide izan nahi baduzue, bete ezazue eskaera, sinatu eta Musika Eskolan entregatu edo [tgarbizume@lezo.net](mailto:tgarbizume@lezo.net) helbidera bidali, maiatzaren 02tik 16ra.**

*2020an (4 urte) jaiotako ikasleei, probaldi gisa, ez zaie ikasturteko lehen hilabeteari dagokion tasa kobratuko (irailean). Probaldia amaitu eta jarraipenari **uko egin ez bazaio, gainerako hilabeteak kobratuko dira (16,50 euro).***

Besterik gabe, eskerrik asko zuen arretagatik eta jakin ezazue, zuen esanetara gaituzuela, 943 529999 telefonoan.

Lezo, 2024-04-08



Lezoko Unibertsitateko Udala

“TOMAS GARBIZU” LEZOKO  
UDALAREN MUSIKA ESKOLA.  
Izp.: Xanti Espina



LEZO ongizate iraunkorra